

GASTEIZERAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SISTEMA IRAUNKORRA ERAIKITZEKO OINARRIAK

Azken dokumentua, Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia
Iraunkorra definitzeko 2016an egindako partaidetza-prozesuaren
emaitza

2016ko azaroa

#elikatuVGalimenta

www.vitoria-gasteiz.org/vgalimenta

www.vitoria-gasteiz.org/elikatuvg



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

AURKIBIDEA

1. Herritarren bultzadatik erakundeen sostengura	1
2. Partaidetza-prozesua.....	2
3. Helburuak eta jarduera-ildoak	3
4. Emaitzak eta hurrengo urratsak.....	10

1. Herritarren bultzadatik erakundeen sostengura

Gizartearen bultzadari esker abian jarritako ekimena

2012tik 2014ra bitartean, Gasteizko zenbait erakunde, bai eta herritar partikular batzuk ere, nekazaritzako elikagaiei buruzko hausnarketa prozesu batean murgildu ziren. Nekazaritzako elikagaiez aritzeak hainbat jarduera hartzen ditu barne: hasteko, elikagaien kontsumorako produktuak landatzea; ondoren, horiek eraldatu, banatu, merkaturatu eta kontsumitzea; azkenik, hortik sortzen diren hondakinak. Hausnarketa-prozesu horretan, tokiko nekazaritza elikagaien sistemak eredu berri baterantz eboluzionatu behar zuela planteatu zen, ingurumen, gizarte eta ekonomia krisiak sorrarazi dituen erronkei egokitu eta erantzuteko gauza izan dadin.

Talde-lan horren emaitza gisa "Vitoria-Gasteiz, nekazaritzako elikagai-sistema jasangarriaren alde"¹ izeneko adierazpena idatzi zen. Bertan, hasierako egoera aztertu eta ildo estrategiko posible batzuk proposatu ziren, nekazaritzako elikagaien eredu eraldatu eta sistema iraunkorragoa eta lurraldearen ezaugarri eta tradizioen bateragarriagoa lortzeko.

Eskema berriak tokiko ekoizpena eta kontsumoa lotzea sustatu behar du, xede honekin: klima-aldaketara egokitzeko gauza izatea, haren aztarna ekologikoa murriztea, sistemaren inguruan jarduera ekonomikoa sustatzea, herritar oro elikagai osasungarriez hornitzea, ohitura osasungarriak sustatzea, nekazaritza eremuetako herrietako jarduera tradizionalak eta lurra babestea, eta gardentasuna eta elikagaiek daramaten informazioaren benetakotasuna sustatzea.

Erakundeen sostengua

Adierazpenak behar bikoitza nabarmentzen zuen: batetik, Gasteizko eta Arabako gizarte osoa inplikatzeko; bestetik, nekazaritzako elikagaien gaia Udalaren agenda politikoan sartzea. Horri erantzunez, 2014ko martxoan, Gasteizko Udalbatzak aho batez onartu zuen nekazaritzako elikagaien udal plana lantzea, alor horretan ari ziren erakundeekiko lankidetzan, interesa zuten herritar eta elkarteekin batera. Erabaki horrek nekazaritzako elikagaien sistemaren ikuspegi berria udal politiketan sartzea dakar, eta jarduteko plan bat zehaztea, udal-eskumenen barruan.

Plana diseinatzeko hasi aurretik, 2015ean udalerriko nekazaritzako elikagaien sistemaren aurreiazko analisia egin zen. Dokumentu² hori oinarritzako materiala izango zen partaidetzako diagnostiko bat eztabaidatu eta lantzeko, bai eta lortu nahi den ikuspegiarekin bat datozen agertokiak lantzeko ere. Horren osagarri, agertoki horietara iristeko lehen jarduerak ildo batzuk iradokitzen ziren.

¹ <http://nekazaritzakoelikagajasangarriak.blogspot.com.es/>

² <http://www.vitoria-gasteiz.org/elikatuvg> web-orrian eskuratu daitezke bai aurreiazko diagnostikoa bai laburpena.

2. Partaidetza-prozesua

2016ko lehen seihilekoan, interesa zuten agenteek eta herritarrek oro har aurretzako diagnostikoa berraztertu, osatu eta balioztatzeko partaidetza-prozesua egin zen, bai eta lortu nahi den eredura pixkanaka hurbiltzen lagunduko duten helburuak eta jarduera-ildoak zehazteko ere.

Partaidetza-prozesua otsailaren 23tik ekainaren 14ra bitartean garatu zen; aurrez aurreko sei lantegi egin ziren, online egindako lau inkestek osatuta. Guztira, 105 pertsonak hartu zuten parte prozesuan (59 gizonak eta 46 emakumek); horietako batzuek behin baino gehiagotan parte hartu zuten, orotara 224 esku-hartze izan ziren, eta ekitaldi bakoitzean batez beste 37 pertsonak hartu zuten parte. Parte-hartze birtuala, berriz, txikiagoa izan zen, guztira 72 inkesta erantzun baitziren.




Fig. 1: Partaidetza-prozesuaren garapenaren eskema

Partaidetza-prozesuan sortutako agiriek, diagnostiko partekatuek eta parte-hartzaileen gogoetek –aktetan eta ondorioei buruzko agirian³ jasota daude–osatzen dute "Gasteizerako nekazaritzako elikagaien sistema iraunkorra eraikitzeko oinarriak" deritzon dokumentua.

³ Horiek denak <http://www.vitoria-gasteiz.org/elikatuvg> web-orrian eskuratu daitezke.

3. Helburuak eta jarduera-ildoak

Partaidetza-prozesuan zehar, zenbait helburu eta horiek zehazteko neurri batzuk adierazi dira nekazaritzako elikadurarako eredu berria eraikitzearen, nekazaritzako elikagaien katea osatzen duten sektore ezberdinen ikuspuntua barne hartuz.

Ondoren, hogeita bat helburu horiek zerrendatuko dira, lehenetasun hurrenkeran, eta bakoitzari dagozkion jarduera-ildoak, jatorrizko idazketan. Zerrendan antolatuta islatzen dira prozesuan aktiboki parte hartu duten gasteiztarrek nekazaritzako elikagaien sistemarekin lotuta adierazitako itxaropen eta beharrak.

1. HELBURUA. JANTOKI PUBLIKOAK. Ikastetxe eta jantoki publikoetan produktu lokal, ekologiko eta gertuko gehiago sartzea.

1. Udalak kudeatzen dituen jantoki publikoen azterketa.
2. "Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidea" aplikatzea jantoki publikoak, biltzar ekitaldi eta jarduerak eta antzekoak janariz hornitzeko udal erosketa eta kontratazioetan.
3. Ikastetxe publikoetako jantokiak tokiko produktuez eta produktu ekologikoez hornitzeko proiektu pilotuan parte hartzea.
4. Elikadurarako udal laguntzak, horren beharra duten pertsonentzat: txartel horiek elikagaiak ekoizteko proiektu sozialetan trukitzea, Cáritasen Baratzea, esaterako.
5. Jantoki komunitarioetan elikadura osasungarriaren eta tokiko produktuen aldeko kultura sustatzea. Pedagogia eta sentsibilizazio-ekintzak antolatzea, janaria ekoizteko, erosteko, prestatzeko eta jateko moduetan zein hondakinak kudeatzeko moduetan kultura aldatzen laguntzeko.

2. HELBURUA. EKIMENEN SAREAK. Eraldatzaile, banatzaile eta merkatarien arteko konexioa sustatzea.

6. Inplikaturako agenteen eta ekimenen inbentarioa: Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorreko agenteen sarea.
7. Sareko agenteen beharren urteko azterlan gurutzatua.
8. Agente anitzen topaketa eta lan-jardunaldi fisikoak antolatzea aldian behin.
9. Esperientzia inspiratzaileen behatoki aktiboa.

3. HELBURUA. LUR BANKUAK. Nekazaritza ekologikoan jardun nahi duten ekoizle berriei lurra erabiltzeko aukera ematea, landa eremuko eta hiri inguruko herri-lurzor.

1. Udalerriko lurren inbentarioa egitea, ezaugarriak, egoera eta etorkizunerako "itxaropenak" zehaztuta.
2. Araudia aldatzea, nekazaritzarako lurra higiezinaren espekulaziotik babesteko eta ustiapenen eskualdatzea errazteko.
3. Lurra erabiltzeko aukera ezberdinak sortzea, eskaintza eta eskaera parekatzearren.

4. Nekazaritzaren eraginaren ebaluaziorako sistema, neurri osagarri gisa; HAZI garatzen ari da hori.
5. Nekazaritza eremuetan etxebizitzak alokatzea erraztuko duten politikak.

4. HELBURUA. ARAUAK BERRIKUSTEA. Arauak berrikusi eta egokitzea, Gasteizko udalerrian nekazaritza eta abeltzaintza instalazioak jartzea errazteko.

1. Erakundeen eta sektoreen arteko lankidetzaren bidez alorreko araudian txertatu beharreko definizioak lantzea. Alorra ezagutzen duten sektoreko administrazioen ikuspegitik landu behar dira definizio horiek.
2. Udalaren hirigintza araudia irizpide logiko eta gaurkoen arabera berrikustea, nekazaritzako elikagaien jarduera sustatzearen (jarduera eta eredu ezberdinen arteko bizikidetzaren sustatuko duena, baztertzaila izan gabe); ahal dela, xedapen aldaketan bidez egingo da, Plan Orokorra berrikusi beharrik gabe.
3. Udalaz gaindiko araudiaren interpretazio onuragarria lortzea, batez ere txerri-azienden sektoreari dagokionez.
4. Leihatila bakarra sortzea nekazaritza edo abeltzaintza instalazio berria ezarri nahi dutenentzat.

5. HELBURUA. GIZARTE ESKAERA. Tokiko kalitateko produktuen eta produktu ekologikoen eskaera eta kontsumoa sustatzea.

5. Hirian eskaintza zabala, kalitatekoa eta eskuragarria sustatzea, eskaerari egokituia.
6. Udalaren laguntza gizartearen eskaera edo herritarren ahalduntzea sustatzen duten eragile sareentzat eta ekimenentzat.
7. Udalaren lurren eskaintza publikoa egitea, bakarrik ekoizpen ekologikorako.
8. Kontsumo eredu arduratsuago baten komunikazioa eta marketin intenzionala.

6. HELBURUA. AGROEKOLOGIAREN SUSTAPENA. Jarduera agroekologikoetara emandako landetxe eta ekoizleen kopurua zein lur azalera handitzea.

1. Agroekologian oinarritutako edo horretara bideratutako proiektuak dibertsifikatzeko pizgarriak bilatzea. Esate baterako, lur bankuaren zati bat horrelako proiektuetarako gordez.
2. Baserriaren ikuspegi zirkularra berreskuratzea, zikloa ixten duen produkzio-sistema gisa.
3. Gasteizen hondakinen kudeaketa hobetzea: materia organikoa nekazaritza eta abeltzaintzara bideratzea.
4. Kontzientzia hartzea: tartean dauden eragile ororen (ekoizleak, kontsumitzaileak eta administrazioa) sentsibilizazioa, beharrezkoa delako hezkuntza eta pedagogia aldaketa.

7. HELBURUA. ELIKADURA POBREZIA. Elikadura pobrezia desagerraraztea eta xahuketa eragozteko.

1. Hirian autokontsumorako landaketak sortzea.

2. Araudia egokitzeko aukerak aztertzea, autokontsumorako hiri baratzeetan animalia txikiak –hegaztiak, untxiak– eduki ahal izateko.
3. Proiektu sozial globalagoak, lurra lantzeko espazioak barne hartzen dituztenak.
4. Jantoki komunitarioak sortzea, tokiko produktu fresko eta kalitatekoak eskaintzen dituztenak, soberakinak murrizteko programa batekin lotuta.
5. Udalaren elikadura-bonu sozialen sistema nekazaritzako elikagaien estrategiaren irizpide eta helburuetara egokitzea.
6. Elikadura hezkuntzako berriazko programa bat proposatzea, elikadura pobrezia aurre egiteko tresna gisa.
7. Nekazaritzako elikagaien beste estrategia batzuetan elikadura pobrezia kontra borrokatzeko jardunbide egokiak bilatzea.

8. HELBURUA. LURZORUAREN BABESA. Nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzorua babestea, plangintzaren eta legeriaren bidez.

8. Elikagaiak ekoizteko erabiltzen den lurra babesteko araudi bat garatzea.
9. Gasteizko HAPOaren berrikuspena, elikagaiak ekoizteko lurra babesteko irizpideak kontuan hartuz.
10. Lurraren berezko emankortasuna indartzen duen araudi bat garatzea.
11. Prestakuntza teknikoa, nekazaritza jardunbideak aldatzeko eta lurra, ingurunea eta pertsonen osasuna errespetu handiagoz tratatzen dituzten metodoak eta jardunbideak ikasteko.
12. Esperimentazio gehiago. Nekazaritza ekologikoko jardunbide egokiak probatu eta garatzea, lurraren kalitatea hobetzeko. Esate baterako, laboreen txandakatzea.

9. HELBURUA. BIODIBERTSITATEA. Biodibertsitatea sustatzen duen nekazaritzako elikadura / nekazaritza eta abeltzaintza ereduaren alde egitea.

1. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen protagonismoa eta ahalduntzea.
2. Nekazaritzako elikaduraren ereduarekin zerikusia duten eragileen sarea sortzea.
3. Ereduaren zerbitzurako ezagutza, baliabide eta tresna egokiak sortzea.
4. Lurralde eta lur osasuntsuak, biodibertsitatearen oinarri gisa.
5. Kimaketa eta lorazaintzako hondakin organikoen kudeaketa.
6. Etxaldeetan autokontsumorako energia berriztagarriak ezartzea.
7. Abeletxe txikiak garatzen laguntzea, baliagarriak baitira nekazaritza ekologikoaren jarduna garatzeko eta zikloak ixteko.
8. Ura ondasun publiko gisa babestea.

10. HELBURUA. HIRIGINTZA. Hirigintzari eta auzoen kudeaketari buruz hausnartzea, eraldatzeko eta merkaturatzeko instalazio txikiak eta merkataritza alternatibo eta malgua kontuan hartu ahal izateko.

1. Hirigintza-arauak moldatzea, auzoetan eraldatzeko eta merkaturatzeko instalazio txikiak/azokak/ merkataritza alternatibo eta malgua ezarri ahal izateko.

2. Auzoko azoka irekiak/itxiak sustatzea/berreskuratzea, elementu osagarri eta beharrezkoak baitira gertuko eta kalitateko produktuak eskuratzen laguntzeko.
3. Azokak kontsumo arduraturako espazio gisa sustatzen duen politika fiskala.

11. HELBURUA. SALTOKI TXIKIAK. Saltoki txikiei laguntzea.

1. Gasteizko janari-denda txikien arteko lotura handiagoa.
2. Merkatarien eta ekoizleen arteko koordinazio eta gertutasun handiagoa.
3. Merkataritzarako prestakuntza espezializatua: prestakuntza nekazaritzako elikagaien estrategiaren testuinguruan, alderdi hauei buruz: etiketatzea, trazabilitatea, marketina.
4. Merkataritzari laguntza ematea erakundeetatik, politika publikoen koherentziatik.
5. Auzoetako azokak. Orain dauden auzoetako azokei laguntza handiagoa ematea eta sustatzea.
6. Komunikazioa eta bisualizazioa. Hirian janari ekologikoak / iraunkorrak / lokalak eta bidezko merkataritzakoak erosteko dauden aukerak ezagutaraztea.
7. Azoka birtual homologatua.
8. Elikadura osasuntsu, osasungarri eta kalitatekoarekin lotutako balioei buruzko sentsibilizatzeko etengabea.

12. HELBURUA. ELIKADURA IKERKETA. Nekazaritzako elikagaien katearen fase bakoitzarekin lotutako ezagutza hobetzea.

1. Ekoizleek dituzten beharren eta egiten diren ikerketen arteko konexio handiagoa, ikuspegi praktikoa batekin.
2. Egiten diren ikerketen plangintza koordinatua.

13. HELBURUA. HORNIKUNTZA PUBLIKOA. Hornikuntza ekologiko eta lokalaren aldeko konpromiso publikoa bermatzea.

1. helbururako proposatu diren neurriek eta ekintzek ere zuzeneko aplikazioa dute helburu honetan.
2. Eraldaketa zentro txikien aldeko apustu lokala.
3. Hiriko gizarte-etxeak estrategiarako erreferentziatzeko espazio gisa.
4. "Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorreko agenteen sarea" Zigilu bereizgarri bat sortzea, estrategian inplikaturako agenteak identifikatu eta ezagutarazteko: ekoizleak, eraldatzaileak, banatzaileak, merkatariak, kontsumitzaileak, Udala...
5. Estrategiari laguntzeko keinu txikiak Udalak antolatutako ekitaldi zehatzetan.
6. Hezkuntza eta sentsibilizazioa.

14. HELBURUA. URAREN KUDEAKETA. Baliabide hidrikoak zentzuz kudeatzea, nekazaritzako elikagaien sistemako aktore guztien arteko adostasunez.

1. Ur-masen babesa.
2. Laborantzarako ur-kontsumoa optimizatzea.
3. Ureztatze erabilgarri dagoen ur-kopurua handitzea.
4. Elikadura Estrategiarekin lotutako ureztatze plan bat lantzea.
5. Uraren kudeaketa elikadura estrategian.

15. HELBURUA. HONDAKINEN KUDEAKETA. Sortutako hondakinak murriztea fase guztietan, eta hondakin organikoak konposterako berrerabiltzea.

1. Hondakinak murrizteko konpromiso politikoa.
2. Hondakin Plana: nekazaritzako elikagaien strategiaren ikuspegi eta helburuekin bat datozen ikuspegi eta irizpideak aintzat hartzea.
3. Hondakinen kudeaketarekin loturiko fiskalitate berdea.
4. Gaikako bilketa eta materia organikoaren balorizazioa: oraingo sisteman aldaketak egitea.
5. Kontzientziaztea, herritarrak eta komunitateak erantzukizuna eta konpromisoa beren gain har dezaten.
6. Elikagai-soberakinak murriztea: irtenbide berritzaileak aktiboki bilatzea.

16. HELBURUA. OHITURA ARDURATSUAK. Informazioa eta prestakuntza, elikadura-ohitura jasagarriak ezartzen laguntzeko.⁴

1. Produktu freskoen kontsumoa handitzea; horretarako alde aurretik informazioa eman beharra dago, gizartea kontzienteagoa eta koherenteagoa izan dadin kontsumitzeko garaian.
2. Eskoletako curriculumean elikadurari buruzko kultura irakats dadin ahalegintzea, nekazaritzako elikagaiak, nutrizioa eta zainketa landuz.
3. Hainbat esparrutan informazioa eta prestakuntza ematea: ikastetxeak, helduak eta adinekoak elkartzeko erakundeak, bai eta udalaren barruan ere.
4. Ikastetxeetan hitzaldiak eta lantegiak antolatzea zerikusia duten hiru taldeentzat: irakasleak, ikasleak eta gurasoak.
5. Tokiko etiketa ekologikoak sustatzea.

17. HELBURUA. LANDETXE MISTOAK. Lehen Gasteizko herrietan zeuden nekazaritza eta abeltzaintzako landetxeak berreskuratzea eta ekoizpena dibertsifikatzea, bai eta permakultura baliatuz ere.

1. "Etxalde berriak" garatzeko laguntza.
2. Ereduarekin bat datorren udal araudia garatzea.
3. Prestakuntza espezializatua plus gisa. Oraingo lanbide prestakuntzaren osagarri gisa.
4. Udalerrian eraldaketa zentro txikiak sustatzea.
5. Sektoreko profesionalen artean lankidetzak kultura berria garatzea.
6. Etxalde berriak ezartzeko laguntzak.

⁴ Helburu hau ez da aurrez aurreko saioetan landu, beraz, online inkestaren bidez aipatutako eta diagnostiko-agiritik ateratako jarduerak sartu dira.

7. Lurrak eskuratzea.

18. HELBURUA. ENERGIA. Energia-kontsumoa gutxitzea fase guztietan.

1. Instalazioetan energia-eraginkortasuna sustatzea.
2. Ustiapen txikietan energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.
3. Energia aurrezpena eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko neurriak.

19. HELBURUA. GIZARTE AITORPENA. Elikagaien ekoizlea duintzea, lanbideari gizarte aitortzea emanaz.

1. Heziketa: gizarte aktore guztiak nekazarien zereginaren garrantziaz kontzientzia harraraztea hezkuntza arautuaren fase guztietan.
2. Komunikazio estrategiak: nekazarien lana hedabideetan ezagutaraztea.
3. Ahalduntzea: nekazariak ahalduntzea, sektore estrategiko batean funtsezko aktore gisa duten garrantziaz ohartu daitezela lagunduz.
4. Emakume nekazariak: emakume nekazariak profesionalizatzen laguntzea, landa eremuetan kontziliaziorako eta zereginak banatzeko bitartekoak e.
5. Legeria: legerian eta ordenantzetan ekoizle txikiak babesten lagundu dezaketela aldaketak sartzea.
6. Dibertsifikazioa: herrietan ekonomia dibertsifikazioa sustatzea, "lo-herriak" bihurtu ez daitezela.
7. Identifikazioa: tokiko produktuen eta ekoizleen identifikazioa sustatzea.

20. HELBURUA. EKIMENAK BULTZATZEA. Administrazioetik elikadura eta kontsumo ohitura jasagarriak, arduratsuak eta abar sustatzen dituzten herritar-ekimenak bultzatzea.

1. Herritarren ekimenak jasotzeko udal bulegoa.
2. Sareak eta aliantzak osatzea. Udalak, osoko ikuspegia duelarik, zubiak eraiki eta lehendik abian jarritako ekimenen arteko sareak osatzen lagundu dezake, ezagutza areagotzeko aliantzak sortzen...
3. Hiri nekazaritzako gizarte jarduerak sustatzea.
4. Sukaldaritza begetarianoan, makrobiotikan... espezializatutako eragileekiko lankidetzak.
5. Udalak elikaduraren alorrean dituen kanalak berraztertzea eta egokitzea (gizarte etxeetan sukaldaritza ikastaroak, jai ekitaldiak ...).

21. HELBURUA. TRAZABILITATEA. Ekoizle-banatzaille-merkatari kateari buruzko eta produktuari buruzko informazio-sistema bat sortzea.

1. Hasteko, tokiko merkatuan dagoen eskaintzaren azterketa azkarra eta, aldi berean, sakona.
2. Elikagaiak identifikatzeko sistema orokorra diseinatzea.
3. Kanal laburren sustapena, elikagaiei buruzko ezagutza handitzeko.
4. Araudi lagungarriak garatzea.

5. Kontsumitzaileen sentsibilizazioa.
6. Kontsumitzaileei elikagaien prezioari buruzko berriazko prestakuntza ematea.

4. Emaitzak eta hurrengo urratsak

Agiri honetan aurkeztutako edukiak 2016an bost hilabetetan garatutako partaidetza-prozesuan egindako lan gogorraren emaitza da, askoz aurretik abiatutako herritar-ekimen baten jarraipen gisa. Baina prozesua ez da hemen amaitzen, lortutako emaitzak abiapuntua izango baitira Gasteizko nekazaritzako elikagaien sistema eraldatu eta eredu hurbilagoa eta ingurumenari errespetu handiagoa diona lortzeko plan eta ekintza zehatzak garatzeko.

Prozesu horren lehen emaitza diagnostiko-dokumentuaren baliozkotzea izan da, parte-hartzaileek adostu baitzuten oinarritzko tresna izango zela elikadura-eredu berria eraikitzeko, alderdi batzuetan datuak falta direla eta sakonago aztertu behar direla jakin arren.

Bigarren emaitza helburu eta neurrien zerrenda da, eta agiri honetan lekua berezia eskaini zaie, horiek baitira partaidetza-prozesuak iraun duen bost hilabeteen emaitza nagusia.

Prozesuan zehar, parte-hartzaileetako askok behin eta berriro adierazi zuten aurrera egiteko eta "papera" errealitate bihurtzeko beharra, eta bereziki agerian geratu zen azken lantegiko osoko bilkuran. Sareko lanean oinarritu behar du horrek, prozesuan sortu den komunikaziorako eta iritzi trukerako espazioa baliatuz. Helburuak errealitate ukigarri bihurtzeko bidea pixkanaka egin behar da, proiektu txikietatik hasita, eta partaidetza-prozesuaren esentzia eta emaitzak ez ahazten saiatuz une oro.

Jarraipen eskaera horri erantzuteko landu da agiri hau, zeinak proiektu partekatu dugun hilabeteetan gertatutakoa laburbildu eta aurrera egiteko egin beharreko urratsak identifikatzen baititu. Dokumentu hori baliozkotzea izango da abiapuntua berari dagokiola uste duen pertsona, talde edo erakunde orok han jasotako ikuspegia berresteko aukera izan dezan, eta helburu komuna lortzeko bere ekintza plan propioa eraikitzen hasterik izan dezan. Komunikazioa eta koordinazioa ere landuko dira, agente gakoan atxikipen eta konpromiso berriak lortzeko.

Gasteizko Udalak, berriz, Udalaren Ekintza Plana landuko du, partaidetza-prozesuaren barruan identifikatu diren alderdietatik udal-eskumenen barruan geratzen direnak garatzeko. Udal esparru horretatik kanpo geratzen diren alderdiei dagokienez, Udalak sostengua emango die beren ekintza plan propioa landu nahi eta laguntza behar duten agenteei.

Bestetik, ekintza planetan proposatzen diren neurriak abian jartzeko eta horien jarraipena egiteko, beharrezkotzat jotzen da lankidetzako organo bat sortzea, zerikusia duten agenteen arteko partaidetza eta koordinazio espaziotzat ulertuta. Horrenbestez, "Elikaduraren Kontseilua" deitu genezakeena definitzea litzateke datozen hilabeteetan eman beharreko lehen pausuetako bat, hau da, horren izaera, funtzioak eta osaera definitzea.

Azken gogoeta gisa, partaidetza-prozesuan aipatu da eredu berriaren irismena Gasteizko udalerraren mugetatik haratagokoa dela, gai honetan lurralde esparruaren definizioak zerikusi handiagoa baitu geografia, ekologia eta gizarte alderdiekin mugaketa administratiboarekin baino. Horrek esan nahi du nekazaritza elikagaien eredu berria garatzeko eskumenak hainbat erakunde eta antolakunderen eskuetan daudela eta horregatik, askoz garrantzitsuagoa dela koordinazioa eta erakundeen arteko lana sendotzeko beharra.